

MACSONRISAS

www.macsonrisas.es



BABESTU ZAITEZ

Online zerbitzu guztiek eskaintzen dizkigute geure burua babesteko tresnak: erabiltzaileak blokeatzea; argitalpenak, iruzkinak eta erabiltzaileak salatzea; mikrofonoak isilaraztea online jokoetan...

Leku bakoitzean nola egin dezakegun interneten biladu daiteke.



BI PAUSOTAKO AUTENTIKAZIOA

Aktibatzen dugun unetik, norbait gure kontuan beste toki batetik sartzen saiatzen bada, gure helbide elektronikora edo telefonora mezu bat bidaliko digute kode batekin.

Kode hori gabe ezingo dira sartu, nahiz eta pasahitza jakin. Horregatik deitzen da bi pausoetako, pasahitza eta bidaliko diguten kodea behar ditugulako.

PRIBATUTASUN EZARPENAK

Aukeratu nork bidali ahal dizkizun mezuak, zure argitalpenetan nork izango duen idazteko aukera, nork etiketatu edo aipatu zaitzakeen, nork gehitu zaitzakeen taldeetara, online noiz zauden ikusi, zerbitzari pribatuetan sartu...

Oso ohikoa da ezezagunek mezu gogaikarriak, gauza desatseginak edo esteka desegokiak bidaltzea, taldeetan sartzea.

Online joko guztiek eta sare sozial guztiek pribatutasun ezarpenak dituzte, begiratu zein aukera eskaintzen dituzten eta ondo pasa modu babes eta pribatuan.

Komeni da adiskidetasun-zirkuluak ezartzea, hau da, jende guztiari gauza bera ez kontatzea. Konfidantza gehien dugun pertsonekin gauza gehiago partekatzea.



SEGURTASUN ETA PRIBATUTASUN GIDA

KONTU PRIBATUAK

Sare sozialetan kontu pribatuak jartzea gomendatzen da, gure informazioa eta argitalpenak nork ikus ditzakeen kontrolatzeko.

Bakarrik bitzita errealean ezagutzen ditugun pertsonakontartzea garrantzitsua da.



SESIO HASIERAK

Sare sozial eta online joko askotan, gure kontuetara zein gailuetatik sartzen ari garen ikusteko aukera ematen digute. Norbait gure kontuetan sartzen ari den edo ez ikusi dezakegu.

Norbait sartzen ari dela egiaztatzen badugu, saioa itxi, pasahitza aldatu eta bi pausoetako autentikazioa aktibatu dezakegu.

PASAHITZAK

Sendoak (letrak, sinboloak, zenbakiak, letra larriak...) erabiliko ditugu. Zerbitzu bakoitzean desberdinak izango dira eta 6-8 hilabetero aldatuko ditugu.

Pasahitza kudeatzaileak erabili ditzakegu guztiak gogoratzeko. Pribatuak dira, adingabeenak soilik gurasoek ezagutuko dituzte, eta Ikastetxeetako pasahitzak irakasleek ere ezagutuko dituzte.